EIBARKO UDALBATZAREN BILKURARI

Josu Mendicute Rodriguezek, Eibarko EAJ-PNV udal taldeko bozeramaileak, ondorengo Mozioa aurkezten du, Udalbatzaren Osoko Bilkurak eztabaidatu dezan, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubideari buruz.

## ZIOA

Eibarko Udalbatza aintzindari izan zen 1931ko apirilaren 14an Espainiako Errepublika aldarrikatzen. 85 urte beranduago, Eibarko Udalbatzak aitortu beharra dauka 1931ko apirilaren 12an hautetsi izan zirenen ausardia; eta konpromiso demokratizatzaile hori berreskuratuz, aldarrikapen hori egin zutenen oinordeko gisa, Eibarko Udalak ondorengo hau aldarrikatzen du, Euskal Herriak duen erabakitzeko eskubidearen defentsan:

## MOZIOA

1.- Euskal Herriak subjektu politikoa osatzen du, zeinaren partaide diren Eibarko herritarrak. Hori dela eta, Eibarko Udalbatzak aldarrikatu egiten du Euskal Herriari bere etorkizunaz erabakitzeko, kontsultatua izateko eta libre eta demokratikoki adierazten duen borondatea errespetatua izateko dagokion eskubidea eta gaitasuna.

AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Josu Mendicute, portavoz del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV, presenta la siguiente Moción para su debate en Pleno sobre el derecho del Pueblo Vasco a decidir su futuro.

## JUSTIFICACIÓN

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar fue pionero el 14 de abril de 1931 proclamando la República española. 85 años después, el Pleno del Ayuntamiento de Eibar debe reconocer la valentía de los electos el 12 de abril de 1931; y recobrando ese compromiso democratizador, como descendientes de quienes materializaron aquella proclamación, el Ayuntamiento de Eibar manifiesta lo siguiente, en defensa del derecho a decidir del Pueblo Vasco:

## MOCIÓN

1.- El Pueblo Vasco constituye un sujeto político, del que los y las ciudadanas eibarresas forman parte. En ese sentido, el Pleno del Ayuntamiento de Eibar reivindica el derecho y capacidad que corresponde al Pueblo Vasco para decidir su futuro y sea respetada su voluntad expresada tras ser consultado libre y democráticamente.

2.- Eibarko herriak beti erakutsi izan du demokraziaren eta bizikidetzaren aldeko jarrera. Hori dela eta, Eibarko Udalak adierazten du gatazkak konpontzeko ohiko metodoa oinarritzen dela elkarrizketan, negoziazioan, indar politikoen arteko akordio zabaletan edo, hori lortu ezin bada, libre eta demokratikoki adierazitako gehiengoaren iritziaren errespetuan.

2.- La ciudad de Eibar siempre ha demostrado una actitud favorable a la democracia y la convivencia. Es por ello que el Ayuntamiento de Eibar expresa que el método habitual para la solución de conflictos se basa en el diálogo, la negociación, los acuerdos amplios entre fuerzas políticas o, si su consecución no es posible, el respeto a la opinión mayoritaria libre y democráticamente expresada.

3.- Printzipio demokratiko oinarrizkoenak aplikatuz gero, herritarren gehiengoaren borondateari arau-balio esanguratsua eman behar zaio. Horrek esan nahi du zerikusia duten eragile politiko eta instituzionalek beharrezko moldaketak egin behar dituztela, baita nazioarteko esparruan ere, borondate demokratiko horren adierazpen argia asetzeko, 1931n gehiengo demokratikoari erantzunez eta Eibarko Udalbatzaren ekimenetik abiatuta estatu-egiturak berregin ziren bezalaxe.

3.- En aplicación a los principios democráticos más básicos, debe otorgarse un relevante valor normativo a la voluntad mayoritaria de la ciudadanía. Por consiguiente, los agentes políticos e institucionales deben llevar a cabo las necesarias adaptaciones, también en el ámbito internacional, para satisfacer la clara expresión de la voluntad democrática, tal como se hizo en 1931 respondiendo a la mayoría democrática, cuando la iniciativa del Pleno Municipal de Eibar dio inicio a una reestructuración del Estado.

4.- Eibarko Udalak erabaki hau igorriko dio EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari, gainontzeko udalek ere Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarrikapenarekin bat egiteko gonbitea luzatuz.

4.- El Ayuntamiento de Eibar remitirá este acuerdo a la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL, invitando al resto de ayuntamientos a sumarse a esta reivindicación a favor del derecho a decidir del Pueblo Vasco.

Eibarren, 2016ko apirilaren 14an

Josu Mendicute Rodriguez

Eibarko EAJ-PNV Udal Taldea